

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Arritokieta Manterola Gomez

*Zumaia,
Gipuzkoa
(1924-2021)*

Aurkibidea



Biografia



Zumaiako Mari kalean jaio zen 1924. urtean. Ama "Silvestranekua" zuen eta aita "Porrajanekua", biak ere zumaiarrak. Hamar anai-arrebaren artean neska bakarra izan zen eta etxean lan asko egitea egokitu zitzaion, are gehiago aita gazterik hil ondoren. Bera izan zen Arritokieta izeneko lehenbiziko emakumea. Familian arrantzaleak eta arrain-saltzaileak izan zituen. Berak ere lan asko egin izan du, bai despeskan, bai arrain-fabriketan.

Zintak

ZUM-057

- **Proiektua:** Zumaiako hizkera
- **Elkarrizketatzailea(k):** Azkue Ibarbia, Xabier - Sarasua Aranberri, Asier
- **Data:** 2008-09-29
- **Iraupena:** 63 min
- **Euskarria:** MiniDV
- **Kodifikatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Transkribatzailea(k):** Zabaleta Zuloaga, Miren

Pasarteak

1. Prozesioetarako botatako ihiekin jolasean

- **Erref:** ZUM-057/002
- **Iraupena:** 0:04:00. **Hasi:** 00:01:10. **Bukatu:** 00:05:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eliza giroko ospakizunak
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana

Laburpena:

<p>Corpus Christi Egunean ihiak botatzen ziren kaleetan. Mari kalekoek San Telmo kalekoekin borroka egin behar izaten zuten prozesioa pasatakoan zeinek lehenago ihiak bereganatu. Ihiekin pilak egin eta ezkutaketan edo saltoka jolasten ziren. Ihiak Beduako islatik ekartzen ziren gabarran eta kale bakoitzean banatu.</p>

Transkripzioa

- Calle San Telmokuakin borrokan.
- Bai, zeba?
- Ihidxak-eta harrapatzen giñuzen ta. Corpus Christi Egunian ihidxak botatzen zian ta prozesidxua pasatzen zanian, danok ihidxak geo saltoka ibiltzeko ihidxen gaiñian. Ta geo Calle San Telmokuak mutill asko ta, haidxek guri harrapatu in nahi, baiña gu´re eskobakin ta zai danok burrukan iteko.
- Ihixak harrapatzeko?
- Ihidxak harrapatzeko.
- Ta non biltzen ziñuen? Nun izaten ziñaten biltzen?
- Dana. Eleizatikan erten ta calle danak botatzen zian zeak, ihidxak. Eta uaintxe prozesidxua pasatzen zan, danok jasotzea eskobakin-ta ta, geo saltoka ibiltzeko, ta duendeka barruan. Ta geo, hurrengo egunian eskolan "castigada" han ibili giñalako bueltaka.
- Eta zer iten zian, pillak?
- Pillak, pillak. Eta geo exkutatu danok pillen barruan, fantasmaka eo zeatzen giñan, ta saltoka´re bai. Eta Calle San Telmokuak gutxidxo harrapatzen baldin bazuen, guri harrapatzen zezkuen, ta danok borrokan.
- Eta hori izaten zan Corpus Christin esan dezu?
- Corpus Christi Egunian izaten zan, bai.
- Ta ze izaten zan, prosezidxua?
- Prosezidxua jaunakin. Eta kale danak zea, berdia. Ta zeak ekarzen zituen, [Paxanonekuak] ez, Xantinekuak gabarra zeken ta isla juten zian, Beduko isla. Handikan ekartzen ziguen.
- Hori esan behar nizun. Handikan ekartzen al zuen?
- Handikan ekarri ta geo partitu ta paatu iten zien gaiñea. Kale bakoitzak botatzen zuen.
- Isla beti izenen bat, o Beduako isla o beste izenen bat...
- Beduko isla.
- Bai.
- Hara juten zian gabarrakin. Ihidxak. Eta handikan ekartzen zituen.
- Esan dezu pertsona bat izaten zala, Xantineko hori.
- Xantinekua, bai. Ez dakit... nola izena zun? Pilar, ama Pilar, baiña aitta? Ez dakit. Ez naiz akordatzen aittak nola izena zun.
- Eta gero repartidu?
- Geo, saldu. Bai, zea, konparazidxo batea, aurreneko kalekuak... Zuen izeko-ta ez al zian bizi hor? Bai. Nik usten det zuen izeko ta ziala. Eta geo Txortenenekuak´e bai aurrian. Ta geo Calle Marin gora, Calle Nagusikuak ere bai, plazan. Calle Erriberan... danak! Guk ez. Calle Marinekuak eta San Telmokuak harrapatu. Guk ez gendun parteikan. Ez zan juten hara prosezidxua ta.
- Eta ze iten zan? Prosezidxua pasa aurretikan bota?
- Bai, bai.
- Lurrea bota.
- Bai. Lurra dana estalita prozesidxua pasatzeko. Ta geo danok jaso eta lixto, geo hurrengo egunian earra lana izaten zuen basureruak haidxek danak jasotzen!
- Eta prozesidxua ze izaten zan, goizian o...?
- Goizian, meza nausitik ondoren altaria jartzen zan, oain´e bai, Txortengo zea horretan bat. Orduan aurrenengua [...] Zaharreneko atian. Ta hua gure izeko ta, haidxek Hijas de María zian ta haidxek adornatzen zuen. Ta bestia goiko plazan, ba, monjetatikan-ta ateata, Erramun-ta nola ibiltzen dia? Ba, han. Ta geo, behian, beheko... Ez! Goidxan ez zan plazan jartzen orduan, orduan [...] Zaharreneko atian ta bestia zean, beheko Hotel Zumaiako

aurrian. Ta geo bestia Txortenenekuan, zea horretan. Hiru altare jartzen zian. Ta jauna han zeatzen zuen.

- Ta hori zer zan, gerra baiño lehenuo?
- Ta geo. Gerra... Oaiñ arten.
- Baiño lehenore bai.
- Bai. Bai. Beno, ni jaidxo naixenetikan beti, bai. Prozesidxo jun, erantzi, eta salteka danok ihidxak harrapatzea. Orduan ez zeon honelako jokuikan ta, haidxetxek jolasteko.

2. Umetako jolasak: diabolua, yo-yoa...

- **Erref:** ZUM-057/003
- **Iraupena:** 0:01:25. **Hasi:** 00:05:10. **Bukatu:** 00:06:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:

Lehen kalean jolasten zuten beti. Diaboloarekin jolasten zuten; lehengoak gaur egunekoak baino txikiagoak eta gorriak izaten ziren. Diaboloak erosi egiten zituzten, baina yo-yoak beraiek egiten zituzten.

Transkripzioa

- Jokuak eta dana kalia izango zian?
- Bai, danak: soka-saltuan ta... Oain diabuluakin dabilta ta txikidxak, baiña bagiñuzen guk'e diabuluak. Badakit. Lehenguan esan nidxon: "Utzi nei diabulua aber badakiten ibiltzen", ta bai, ibiltzen det.
- A, bai, e?
- Bai, bai. Nahiz haundidxo izan ezkeore.
- Lehenguak txiki...
- Txikidxaguak. Oso txikidxaguak zian, gorri-gorridxak. Ta geo botatzen giñuzen gora ta. Aittek abilidadia zekan, han soka hartu atzea ta segi berriz ere.
- Eta hoiek in eiten zian eo erosi...?
- Ez, erosi, erosi. Ez zian iten. Yoyok bai, yoyo geuk iten genduzen. Botoi haundidxak izaten zian orduan [...]ta. Bi botoi juntatu, haridxa pasa, zeatu, josi ta geo jartzen gendun ta yoyo. Hura bai, ez gendukan diruik eta!
- Baiña diabolua bai.
- Diabolua bai.
- Hori erosi.
- Bai, erosi.
- Baiña hori esan behar nizun. Orduan, holako jugetiak-eta erosteko diruikan-ta...?
- Ez zan izaten, baiña nik banun behiñik-behiñ diabolua.
- Herentziyan o baten batek...
- Aillegatu zan itxea! Bai.
- Ta hori're kalia.
- A, bai, kalia. Gure prazuela, uandikan Calle Marin daon prazuela horretan... Jesus, zenbat [saltaka]...!

3. Txerritokia eta ganadua Mari kalean

- **Erref:** ZUM-057/006
- **Iraupena:** 0:00:50. **Hasi:** 00:10:40. **Bukatu:** 00:11:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Kaleak, plazak

Laburpena:

<p>Mari kalean txerritokia zegoen eta baita ganadua ere. Eurak kalean jolasean eta txerria kalean solte ibiltzen zen.</p>

4. Umetako jolasak: erre-erreka, ezkutaketan...

- **Erref:** ZUM-057/007
- **Iraupena:** 0:02:05. **Hasi:** 00:11:30. **Bukatu:** 00:13:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:

<p>Umetako jolasak: sokasaltoan, kaniketan, erre-erreka. Erre-erreka jolasa nola zen. Ezkutaketan ere aritzen ziren eta etxeetan ezkututzen ziren. Tren geltokira joaten ziren jendeak botatako txartelen bila eta haiekin ere jolasten zuten.</p>

Transkripzioa

- Eta jolasak eta zeintzuk izaten zian orduan? Soka-saltuan esan dezu...
- Soka-saltuan ta geo erre-erreka´re bai.
- Zer zan?
- Ba, zean jarri, filan, eta batek ertentzen zun saltoka. Eta harrapatzen zuna, hala, eskuak luzatuta. Ta harrapatzen ez zun bitartian, bestiak zeatzen baldin bazun, "libre!", ta danok iges. Bai. Ta geo, "trenadioskak" ("Tres navíos"-ka), itxietan exkutatuta, e!
- Zer zan?
- "Trenadioskak". Bat zean jarri eta beste danok igesi ta itxietan sartzen giñan. Ta, "badator, badator!". Amak-eta´re orduan asko laguntzen ziguen jolasian, bai, ezkututzen-ta. Itxe danak guriak zian!
- Eta harrapatzea.
- Harrapatzea. Eta ikusten baldin bagiñun, saltaka jun eta "bat, bi, hiru, lau!", izena esan eta lixto, danak inda. Haidxek zai bestiak harrapatu arte.
- Eta gero hurrenguan beste batek...
- Hurrenguan bestiak. Hala pasatzen gendun.
- Eta gero, ba, o kanikak o...
- Kanikak. Ta geo estazidxoa jun ta billetiak eroitakuak trenetikan hartu ta... Nola esaten zan kuadratutako burnizkua? Oba, oba. Harekin, montoia jarri ta "da!", botatzen baldin bazun zeatu ta danak zuretzako.
- Txartelak.
- Txartelak, treneko billetiak. Estazidxoa juten giñan billetien billa. Bota iten zuen jendiak billetia, ta. Guk billatu eta geo danok billeteka. Ta kanikak´re bai. Ta zeak´re bai, trenadioskak-ta. Dana!

5. Asakaponetan nola jolasten zuten

- **Erref:** ZUM-057/008
- **Iraupena:** 0:03:00. **Hasi:** 00:13:35. **Bukatu:** 00:16:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:

Asakaponetan ere aritzen ziren. Ahuntzenak izaten ziren hezur onenak; pintatu ere egiten zituzten. Nola jolasten zuten; hezurak alde desberdinak zituen eta alde bakoitzak izen desberdina zuen. Nesken jolasa izan ohi zen asakaponena, sokasaltoaren antzera.

Transkripzioa

- Ta bestia, gure amak esaten duna, hezurakiñ-eta, nola deitzen diyoze?
- Asakaponak!
- Asakaponak.
- Zeiñek baiño ederrauak, akerrekuak. Asakapona da arkumiena motela da, baiña ahuntzena ederra, pintatuta, gorri-gorri. Soiñu bat, ba, in, "rrrrrrrra!" botatzen-ta. Haidxek, haidxek ederrak.
- Akerrana hobia.
- Hobia. Haidxek... Ta geo pintatu iten giñuzen, gorri-gorri-gorri. Bakoitzak bere boltsa, e!
- Tesorua.
- Oo! Hura guria da.
- Eta hori nola lortzen ziñuen? Jan ahala o bestela, karnizeiyen-ta eskatzen ziñuen o nola, hezur hoiek eta nola ingurartzen ziñuen?
- Ez. Karnizeidxan ez zuen ematen, karnizeidxan... Orduan zea asko jaten zan, San Jose egunian-ta ta, arkumia zea huan... Ta inguratutzen giñuzen behiñik behin. Baiña ez galdu, e! Josi poltsa in geuk, ta boltsa hortan sartuta zeakin, [...] pelotakin.
- Pelotatxo bat botatzen zan...
- Bai, bota ta buelta.
- Nola zan? Gogoratzen zea?
- Bai. Lelengo zea, hunela jartzen giñuzen, eta bota ta buelta. Hartu, pelota hartu baiño lehen, hari buelta eman bihar. Bigarren aldiz, zeatuta, irekita. Geo tente. Geo berriz tente. Eta geo ya hirugarrenian dana jaso.
- Hau da, bota, eta denak berdin jarri.
- Ez dakit... Ez naix hau ondo akordatzen nola jartzen giñuzen. Asakiak, sakiak honela zian. Geo bueltan: bat bota ta buelta, sei. Geo, akerkuak... baiña ahaztu're in zazkit!
- Izena zekaben?
- Bai, bai.
- Zati bakoitzak?
- Bai, bai, bere zea zekan. Zeatikan laurak, asakaponak laurak zea diferentia dake. Honela dakanak zulu daka, bestiak lisua, geo hamen ere zea bat eta bestiank'e bai. Bakoitzak beria in behar.
- Eta hori zer zan, nesken jokua? O neska ta mutill, o?
- Ez, ez. Neskak, neskaak. Mutillak ez zian ibiltzen, ez zian ibiltzen, neskak iten giñun.
- Mutillak...
- Mutillak mendidxan o auskalo nun ibiltzen zian! Ez naiz akordatzen!
- Soka-saltuan ta beti neskak ibiltzen al ziñaten?
- Beti neskak ibiltzen giñan, bai.

- Beti aparte mutil ta neska.
- Beti aparte, bai. Trenadioska-ta mutillak ere ibiltzen zian, e! Bai, baiña ez...
- Baiña ez zuekin batea...
- Bakoitza bere aldetikan. Bai.

6. Komunio txikia eta handia; dotrina euskaraz

- **Erref:** ZUM-057/009
- **Iraupena:** 0:01:55. **Hasi:** 00:16:35. **Bukatu:** 00:18:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Dotrina
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Sakramentuak
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

<p>Eskolan neskak eta mutilak banatuta ibiltzen ziren. Jaunartze txikian ere mutilak alde batetik eta neskak bestetik jartzen ziren, baina jaunartze handia denek batera egin zuten. Komunio txikia egun arrunta izaten zen, baina handirako zuriz janzten ziren. Eskolatik joaten ziren ilaran parrokiara dotrina ikastera. Euskaraz ikasten zuten dotrina apaizarekin. Eskolan mojekin ibili zen.</p>

7. Mojetan ikasia; kanpotik etorritako internak

- **Erref:** ZUM-057/010
- **Iraupena:** 0:01:30. **Hasi:** 00:18:30. **Bukatu:** 00:20:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak

Laburpena:

Mojekin ibili zen eskolan. Mojetan bazeuden internak ere, ordaintzen zutenak. Haiek goiko solairuan egoten ziren eta janzkeran ere bereizi egiten ziren. Izen handiko eskola zen eta kanpotik ere etortzen zen jendea.

8. Eskolara joan beharrean Getariara despeskara

- **Erref:** ZUM-057/011
- **Iraupena:** 0:03:35. **Hasi:** 00:20:00. **Bukatu:** 00:23:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Lehorreko lanak » Lehorreko lanak

Laburpena:

<p>Ikasteko gogorik ez zuten izaten eta 11 urterekin sotora joaten ziren lanera, antxoei burua kentzera. Getariara ere joaten ziren despeskara. Osabak ibiltzen ziren motor txikiekin. Kalerik kale iragartzen zuten jendea behar zela despeskarako eta goizeko 4ak aldean kamioian etortzen zitzaizkien bila

despeskara eramateko; bueltan oinez etortzen ziren arrosarioa errezatuz.
Despeska nola egiten zuten.</p>

9. Despeska nola egiten zuten; antxoaren kontserba

- **Erref:** ZUM-057/012
- **Iraupena:** 0:04:30. **Hasi:** 00:23:35. **Bukatu:** 00:28:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Lehorreko lanak » Lehorreko lanak
- Itsasoa » Lehorreko lanak » Arrain fabrikak

Laburpena:

Bi osaba ibiltzen ziren arrantzan motor txikiekin. Familiakoengana joaten ziren despeskara, baina baita besteengana ere. Egunean ordaintzen zieten egindako lanarengatik. Lana erreza izaten zen, baina martxo inguruan hasten zen eta goizean hotz egiten zuen. Despeska nola egiten zuten; arrainak nola libratzen zituzten saretik. Arraina tinetan jartzen zuten gatzarekin. Handik atera eta burua kentzen zieten. Gero bere garaian "fileteak" egiten zituzten. Kontserba-lana asko etxean egiten zuten. Urte guztirako antxoa izaten zuten.

10. Atunaren kontserba

- **Erref:** ZUM-057/013
- **Iraupena:** 0:01:05. **Hasi:** 00:28:05. **Bukatu:** 00:29:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Lehorreko lanak » Arrain fabrikak

Laburpena:

Atunaren kontserba-lanak egitera fabrikara joaten ziren. Atunaren kontserba nola egiten zen: dena garbitu ostean latetan sartzen zen.

11. Ama Birjinaren koroazioa eta zilarrezko ezteiak

- **Erref:** ZUM-057/015
- **Iraupena:** 0:04:00. **Hasi:** 00:31:50. **Bukatu:** 00:35:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eliza giroko ospakizunak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

Laburpena:

Lehenago Andra Marietan gaur egun baino ospakizun handiagoak izaten ziren. Ama Birjinaren koroazioa ospatu zenean 1930ean kale guztiak lorez josi zituzten eta baita zilarrezko ezteiak egin zituenen ere. Arrantzaleen soka lodiekin girnaldak egin zituzten. Jai handia izan zen. Koroazio egunean bi obispo (don Mateo Mujika eta Pildain) eta apaiz ugari etorri ziren. Maiatzaren 23an ere beste festa erlijioso bat egin zen.

Transkripzioa

- Oain ez da hainbesteko zea izaten. Andre Mariko eguna ta iraillan

zortziyan izaten da, ezta?

- Bai.

- Baiña lehenoko festa gehio izaten zan.

- Askoz ere, bai.

- Nola izaten zan lehenoko? Ze ospakizun edo? Egun horretan ze izaten zan?

- Bueno, egun horretan hobena Andre Maidxan ta geo meza. Oain bezela meza-ta bai. Baiña bere zeak eta izatia... Konparazidxo batea, ze esango dizut, ba, bodas de oro, bodas de plata in giñuzenian lelengo hamaika... Karriatu gendun Foronda, zea, batzuek, mutillak Forondan ebakitzen arbustua ta gu karruakin karriatzen, ta geo girnaldakin-ta kale danak zeatu giñuzen. Osea ke, zubi txikiko obispua zetorrela, ta obispotikan dan-dan-danak segi, girnaldak iten. Ez dakit zeñiek ematen zigun dirua soka erosteko! Sokak ta itxe danetan mariñelen... loriga. Baiña geo zea, bitzeko, ez dakit nundikan inguratzen gendun. Inguratzen gendun behiñik behin eta...

- Eta hori noiz izango da?

- Bodas de plata ama birjiña bajatu ta orduan [...] iten zan, Parrokira ekartzen zan Ama Birjiñ. Ta Parrokidxan iten zian pestak.

- Ta zerren bodas de plata zan, ordia?

- De la coronación.

- Koronaziyua?

- Bai.

- Ta hori noiz, noiz izan zan?

- Koronazidxua el año treinta izan zan, hamentxen, plazan.

- Zu ez zea gogoratuko?

- A! Nolako soiñekua nekan'e bai! Rosa, estreñatu nun soiñekua ederra in zien nei.

- Bost-sei urte izango zenitun...

- Bai, baiña...

- Akordatzen zea!

- Bai, akordatzen naiz, ba, nolako soiñekua... Más... Ni baiño're aberatso ez zeon iñorre orduan!

- Pozik.

- Pozikan. Ta geo hamen jarri zuen, tribuna jarri zuen gaiñea, hamen, lehengo plaza hartan.

- Bai.

- Ta jendia komentuko horretatik eskaillera ta dan-dan-dana... Orduan festa haundidxa zan, ta! Koronazidxua. Ta geo berriz'e atzea repetitu zan zean, bodas de plata. Ta geo orokoa're tokatu... Nei danak tokatu zazkit! Koronazidxua. Koronazidxuan lanik ez nun in, umia nitxan ta. Baiña bodas de plata, de oro... Eta geo diamanten ezer ez, meza bat bakarria bakarrik in zuen. Hau den pena! Halako, hainbeste lan in giñenan bodas de oroako ta...

- Eta, koronaziyuan eguna gogoratzen dezu?

- Ederra! Bai, ya lo creo!

- Obispua o etorriko zan, o...

- Bi're!

- Bi, e?

- Bai. Don Mateo Mujika ta Pildain. Eta geo, zenbat apaiza etorri zian! Jesus! Asko! Erretratuak badazkat gordeta.

- Eta zer in zan? Ama Birjiña jeitsi?

- Ama Birjiña jatsi. Ta geo beste bat, beste festa bat ere izan zan, maiatzan hogeita hiruan izan zan, de zea, Gipuzkoa guztiko, Ascensión de... Hijos de Marían o, ez dakit zer zan. Hotela Amaia? Hotel Amaian orduan banderan danak... Hotel Amaia zea haundidxa zan ta han jarri zituen. Ta Ama Birjiña eon zan behian. Hara ekarri zan berriz.

- Hori gero?
- Hori gero, gero, bai.
- Eta bodas de plata hori?
- O! Bodas de plata...
- Hor kaliak eta apaindu zian?
- Danak! Danak apaindu giñuzen, berriz ere segi gernaldak iten!
- Eta jeitsi in zan?
- Jetsi, jetsi.
- Prozesiyuan, o?
- Prozesidxuan. Ta bajatu behar izaten zuen aiuntamentoko...
aiuntamentua zeatzen zuenak: Natalio ta Remigio ta... orduan zein zian?
Bueno, aiuntamientua, korporazidxua zeatzen zuna, haidxek bajatu behar
zuen Ama Birjiña. Haidxek zian zeak, obligazidxua zekenak.

12. Ama Birjinaren koroazioaren inguruko kontuak

- **Erref:** ZUM-057/016
- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 00:35:50. **Bukatu:** 00:37:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Eliza giroko ospakizunak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

Laburpena:

Marqués de Forondak Ama Birjinarentzat soinekoa, kapa eta mantelina oparitu zituen eta Conde de Placenciak koroia. Koroazioaren inguruko azalpenak.

Transkripzioa

- Eta bera, koronaziyua, zer da, o?
- Ze esango dizut, ba? Orduan erregalatu zitun Marqués de Forondak soiñekua, kapa ta bere manteliña, ta Conde de Placenciak koroia, ederrak, urrezkuak, uandikan ere hor daude. Ta ha koronatu zuen Ama Birjiña, koronatu zala, bai, hamen, hamentxe aurrian koronatu zuen, tribuna haundidxa jarrita.
- Eta ordura arte Ama Birjiña diferentia zan?
- Ez.
- Baiña...
- Erropakin, bai, bai. Baiña hori erropa ederra, ordia.
- Zeiñek erabakitzen du, ordia, koronaziyua itia? Edo ze aldaketa...
- Parrokuak.
- Parrokuak.
- Don Wenceslao. Orduan Don Manuel-ta zian, baiña Don Wenceslao etorri zanian, Don Wenceslao zan koronatu zuna. Ta geo hamendikan jun zanian Durangoa, Durangon in zun bestia. Ta geo Durangotikan Tolosa jun zanian, Izaskungua koronatu zun. Hiru in zitun.
- Baiño obligaziyua ete dan holako Ama Birjiñak koronatzia? Edo ze aldaketa ekartzen dittun? Batetik era batekua zan ta geo bestekua, edo?
- Ez, ez, ez, ez. Aldaketaik ez. Hoidxe, lehen koronatu gabe zeola ta geo koronatuta.
- Pixkanaka danak nahi zittuen koronatu, edo beak behintzat...
- Beak hiru in zitun, hiru in zitun Don [Wenceslaok]. Gustatu iten nunbait. Bai.
- Arratekua're orduan...
- Orduan koronatu zuen hura're. Eta baita Azkoitikua're, Urrategikua're bai. Orduan izango zan, moda eo izango zan, ez dakit ze zeatuko zun...

13. "Arritokieta" eta "Telmo" izenen jabe lehenbizikoz bera eta anaia

- **Erref:** ZUM-057/017
- **Iraupena:** 0:03:00. **Hasi:** 00:37:40. **Bukatu:** 00:40:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

<p>Andra Mari eliza garrantzitsua da herritarrentzat txikia izan arren. Bera Ama Birjinaren izena (Arritokieta) daraman lehenbizikoa omen da, orduan ez zuelako uzten don Manuel apaizak. Honen inguruko azalpenak. 9 anaia zituen, eta bera bakarrik neska haien artean. Anaietako batek Telmo zuen izena, eta hura ere Telmo izeneko lehenbizikoa izan zen.</p>

Transkripzioa

- Eta Andra Mari gaiñea, Zumaixan-eta, nahiz eta ermita txikiya-ta izan, herriko jendiantzako-ta inportantia da, ezta?
- Bai, ya lo creo.
- Zuretzat gehio! Izena're bai!
- Bai. Ta aurrenengo Arritokieta, gaiñea.
- A, bai?

- Bai. Don Manuelek ez zun utzitzen.

- Ez, e?

- Ez! Danak Mari Nati o Nati o danak... Lehen Calle Arritokietako hoidxek danak dia Nati. Eta ni naiz bosgarrena: lau mutil aurretikan ta neskaa bosgarrena. Ta gure izeko bat gendukan soltera, izeko Xilbi eta jun omen zan Don Wenceslaona Don Wenceslao etorri zanian, ta esan omen zidxon: "Gauza batekin nator". Ta, "ze esaten dezu, ba?" Ta, "ahizpak haurra izateko dao eta neska baldin bada, Arritokieta izango da". "Ta zeatikan ez da izango, ba?" "Don Manuelek ez zulako utzitzen!" esan omen zidxon. Ta, ba, neska etorri ta Arritokieta, baiña lelengua! Geo uain asko, asko dabe, baiña Arritokieta ni naiz lelengua.

- Eta horrela zea, Arritokieta? Ala María...

- María Arritokieta, bai.

- Nik uste nun lehenokua izango... Lehenbizikua ziñan?

- Lehenbizikua, lehenbizikua.

- Ta etxian Arritokieta o Arritxu?

- Ez. Arritokieta. Eta kaliañ'e bai. Ta geo nere illobak ere badaka Arritokieta neskaa. Eta esan nidxon: "Arritxu zea?" Ta "Ez! Zuri bezela deitzeko". Ta Arritokieta da Rafaelena, hura're Arritokieta da.

- Ta esan dezu lehen lau mutil?

- Nik lau mutil aurretikan.

- Baiña ez Arritokieta izenekuak!

- Ez.

- A!

- Telmo. Ha nere, lelengo Telmo.

- A, bai, e?

- Bai. Valentin, Telmo, Joakin, Mariano, Arritokieta, Miguel, ta geo bizkidxak zian haidxek eta hil zan txikidxa. Eta geo Ismael, Jacob eta Benjamin. Danak mutillak, ni bakarrik neskaa.

- Ta ze mouz moldatzen ziñan hainbeste mutillen artian?

- Gaixki! Lan asko in behar!

- Zu zai eongo ziñan ia beste neskan bat jaiotzen zan, baiña...

- Baiña ez! Danak mutillak etorri zian!

- Zenbat zian? Zenbat mutil?

- Beatzi mutil ta ni bat.

- Ta Telmo're lehenbizikua esan dezu?

- Lehenbizikua Telmo.

- Joño! Ta lehenore ez al zan izenikan Telmo? Ez al zun, ba, Don Manuelek...

- Ez dakit ez zuen lagatzen, baiña, Telmo're lelengua. Valentin, aittak Valentin izena zun ta Valentin. Telmo bigarrena. Ta uain badake Telmo... Andres Marik daka Telmo, badake beadxek ere. Bai. Uain Telmo asko, kanpuan ere aitzen da. Baiña lelengo-lelengo Telmo guria zan.

14. Apaizari berorika

- **Erref:** ZUM-057/019
- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 00:41:10. **Bukatu:** 00:43:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Euskara » Tratamenduak » Berorika

Laburpena:

<p>Abadeari berorika hitz egiten zioten eta haren ondotik pasatzean "Ave María purísima" esan behar izaten zuten. Apaizarekin gertatutako pasadizoa. Amari zuka egiten zion.</p>

15. Herriko abesti batek bere amona izendatzen zuen

- **Erref:** ZUM-057/021
- **Iraupena:** 0:02:10. **Hasi:** 00:43:20. **Bukatu:** 00:45:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Batetik bestera zebiltzanak
- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak

Laburpena:

<p>Herriko abesti batek bere amona izendatzen du esanez "la popular Silvestra…". Amonak ez zuen ulertzen esanahia eta abadeari joan zitzaion galdetzeraz. Abestiaren zatiak abesten ditu.</p>

16. Euren familiaren eta beste batzuen izen edo gaitzizenak

- **Erref:** ZUM-057/022
- **Iraupena:** 0:02:20. **Hasi:** 00:45:30. **Bukatu:** 00:47:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Gaitzizenak

Laburpena:

Familiaren izena edo gaitzizena. Bere ama "María de los desamparados" izendatzen zuten, Alacant-eko Ama Birjina hala zelako. Jendeak "Maria Silvestra" deitzen zion, ama Silvestra zelako, baina ez zeukan izen hori. Aitaren aldetik "Porrajenekuak" ziren, San Telmo kalekoak. Beste familia batzuen izen edo gaitzizenak.

17. Marearekin ibiltzen zen errota

- **Erref:** ZUM-057/023
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 00:47:50. **Bukatu:** 00:49:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Bilketa linguistikoa » Toponimia
- Baserria » Baserriko lanak » Errota

Laburpena:

<p>"Errotakoixkiña" izena nondik datorren. Berak errota zuen etxe txiki bat ezagutu zuen. Ardantzatik zetorren urarekin (marearen urarekin) ibiltzen zen errota. Honen inguruko kontuak. Azken Portukoak bizi omen ziren etxe horretan.</p>

18. Escolástica egunkari saltzailea

- **Erref:** ZUM-057/024
- **Iraupena:** 0:01:30. **Hasi:** 00:49:50. **Bukatu:** 00:51:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Gaitzizenak
- Lanbideak » Batetik bestera zebiltzanak

Laburpena:

"Maria errota" nori esaten zitzaion. Escolástica izeneko batek saltzen zituen egunkariak. Honen inguruko kontuak. Inguruetan ze familia gehiago bizi ziren.

19. Arrain-saltzaileak kalerik kale

- **Erref:** ZUM-057/025
- **Iraupena:** 0:02:45. **Hasi:** 00:51:20. **Bukatu:** 00:54:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Batetik bestera zebiltzanak
- Itsasoa » Lehorreko lanak » Lehorreko lanak

Laburpena:

Herriko arrain-saltzaileak izendatzen ditu. Arrain otarrakada buru gainean hartu eta kalean ibiltzen ziren diarka arraina saltzen. Bakoitzak bere ingurua izaten zuen arraina saltzeko. Bera amarekin ibiltzen zen Mari kalean. Bakoitzak bere arraina saltzen zuen. Arrain asko harrapatzen zenean Donostiara joaten ziren trenez Bretxara saltzera.

20. Txipiroia saltsan bakarrik jaten zen

- **Erref:** ZUM-057/026
- **Iraupena:** 0:00:50. **Hasi:** 00:54:05. **Bukatu:** 00:54:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa

Laburpena:

Lehen txipiroia asko izaten zen. Beti saltsan prestatzen zen txipiroia jateko eta sobratutako saltsarekin amak arroza egiten zuen.

21. Plazan arraindunak eta baserritarren postu ugari

- **Erref:** ZUM-057/027
- **Iraupena:** 0:01:45. **Hasi:** 00:54:55. **Bukatu:** 00:56:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserrria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, eroztera
- Lanbideak » Udal langileak
- Lanbideak » Batetik bestera zebiltzanak

Laburpena:

Herrian sereno bakarra zegoen: "Jangoiko txikixanekua". Kanean arraina bakarrik saltzen zen. Baserritarrek plazara etortzen ziren jeneroa saltzera. Azokan 4-5 postu egoten ziren arraindunenak eta baserritarren postu ugari. Gaur egun urrituta dago; nortzuk egoten diren.

22. Herriko albergak

- **Erref:** ZUM-057/028
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 00:56:40. **Bukatu:** 00:58:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak

Laburpena:

Eurak "Beheko albergara" joaten ziren arropak garbitzera. Non zegoen azaltzen du. 11 aska zituen. Patxi barranderoak egunero pasatzen zituen askak erratz latzarekin. Marinelak ere Beheko albergara joaten ziren euren arropak garbitzera. Herriko beste alberga batzuk non zeuden. Albergako ura San Juan iturritik zetorren.

23. San Juan iturriko ura

- **Erref:** ZUM-057/029
- **Iraupena:** 0:02:10. **Hasi:** 00:58:40. **Bukatu:** 01:00:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak

Laburpena:

<p>Albergako ura San Juan iturritik omen zetorren. San Juan iturriko ura galdu egin zen gerora, baina oso ona zela esaten zuten. Ura ekartzeko ordaindu zutenei ez zieten urik kobratzen gerora. Euren etxera ere handik zegoen ura jarrita, baina beheko kaletik zetorren eta ez zitzaenez iristen, goitik jarri zuten gerora.</p>

24. Gabon-eskeko ohiturak

- **Erref:** ZUM-057/030
- **Iraupena:** 0:01:45. **Hasi:** 01:00:50. **Bukatu:** 01:02:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Erljioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Gabonak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak

Laburpena:

<p>Txiki-txikitatik izan du kanturako zaletasuna. Jaiotzarekin irteten ziren gabon bezperan kantari kalera. Goizean zakuarekin ibiltzen ziren etxerik etxe; "Niño Jesusen eskia" esaten zuten soilik, ez zuten kantatzen. Amabitxiek erroskillak ematen zizkieten euren besoetakoei oparitzat.</p>

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkarte

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com